

Bihotz gosetien kluba



Xabier
Mendiguren
Elizegi

elkar

Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abaildua eroria, jausia	«...bere oin minberatuak mugitzen eta gorputz abailduari tente eusten.»	28
agintza promesa	«Zena zela, hainbat eskari era agintzaren ondoren, baietz esan zion Heidik, joango zela berriz lanera.»	108
ahakar errieta	«Ez batzuen fantasia sexualetan bezain bero, baina ezta ordu batzuk lehenagoko ahakarrak pentsarazi bezain hotz.»	69
aitorpen konfesioa	«Bazeukan egia osoa esan eta ezer ez kontatzeko eskatzea ere, fidatzen zen Felixekin, baina ez zuen aitorpenetarako gogorik.»	47
aiuma auhena, kexuzko intziria	«...Estebanen aldian behingo aiumak entzuten zirela.»	67
aje kexa	«...jende askoren nekeak eta ajeak entzun behar izaten ditu-eta...»	80
ajeatu mina sortu / ajatu : gastatu, maiztu	«...ezpada denboraren ajeatze errukigabearen eta utzikeriaren erruz.»	80
aldamenean ondoan, alboan	«... aldamenean graduatzen diren argi horietako batekin...»	17
aldarrikatu adierazi, proklamatu	«...izatez prakanasai axolagabeak direla aldarrikatzen baitzuen beti amak.»	99
aldean konparazioan	«...eta Maitaneren balbekerien aldean bestelako animoa zekarten gainera...»	56
aldez edo moldez nolabait, nola edo hala	«Hala ere, kalkulatu zuen bidaian Mikel eta Maite ere sartu zituenez geroztik, aldez edo moldez etxearekin lotutako lau pertsonak...»	47
algara karkara, barre zantzoak	«...eta algara zaratasu batean lehertu zen hurrengoan.»	47
alor arloan, eremua	«...gariz edo beste zernahiz beteriko alorrak ...»	84
amu arrantzatzeko gailutxoia	«Hobe hari gehiago ematea amuari tira egin aurretik...»	34
apur hondakina, birrina	«...zertan ari zen konturatu gabe, kruasan apurren eta txokolate tantoen gainetik Heidiren eskuak bereetan hartu eta belauniko geratu zen...»	106
arrakala arraildura, zirrikitua	«Harresi horren harririk gotorrena bihurtu zen, hala ere, harresiaren zirrikitu eta arrakala .»	111
artatu jagon, zaindu	«...galdu samar nembilela halako txoritxoak artatzeko teknikekin...»	12
aterpe estalpea, babeslekua	«... aterpean zain zeukaten oilaskoa...»	28
atontu prestatu, moldatu	«Sukaldean geratu zen, tabernako kontuak zirela-eta paper batzuk atontzen eta telefono-deiak egiten.»	109
atrebentzia ausardia	«Haurra bakean uzteagatik jarriko zen horrela, edo sofan esertzea gehiegizko atrebentzia iruditu zitzaiolako lan-orduetan egonda.»	124
aztal orpoa, oinen atzeko alde	«...orkatila mehe ongi markatuei, aztal zuriaren mamiari, belau atzeko tolesaren marrari...»	123
aztarrika induskatu, (lurrean) sakondu	«...haren bizkaiera arraro hartan aztarrika ibili ostean, beste poema zati bat aurkitu zuen...»	46
aztoratu asaldatu, urduritu	«Biharamunean goizean goiz jailki ziren, alde bezperako zalapartak aztoraturik zeuzkalako, alde ohe berri batek lo arinagoa dakarrelako...»	69
balbekeria heriotzarekikoa, siniestro	«...eta Maitaneren balbekerien aldean bestelako animoa zekarten gainera...»	56
barekurkuilu itsasoko barakuilua (oskolduna)	«Orain barekurkuilua bere oskolean bilduta zegoen...»	95



begitandu iruditu, otu, imajinatu	«Baina Jabiri are kilikagarriago begitandu zitzaion bere soilean, are sexiago bere pobrean.»	125
beharbada igual, agian, apika	«...baina telebistako Heidiri beharbada ez zioten inoiz halako opari gutziatsurik egin.»	114
bekizu izan bedi zureztat, izan dakizula	«...zeure bihotza bera bekizu badozu piederik.»	46
bekozko betilun, beltzuri, haserre keinua	«...hatzak eskutokian estu eta bekozkoa zimurtutik.»	102
belaze larrea, belardia	«Pirinioetako bazter batzuetan, Ernioko puntan, hemengo belaze honetan...»	27
berretsi baieztatu, egiaztatu	«...eskolak ez zuela ezertarako balio berretsi zuen saio haren ondoren.»	105
bertangoxo egonean gustura egotea	«Bere depresio bertangoxo hartatik ateratzeko aski izan ziren hitz haiek.»	99
betertz zeharka, bigien ertzarekin	«...irteten ziren bezeroei betertzez eta errezeloz begira...»	99
bezpera aurreko eguna	«... bezperan aipatutako giltzarena lotzeko...»	36
bidaide bidelaguna	«...bere pareko ikusten zituen Mirenek aurpegi arrotz haiek: bidaide zituen...»	82
bide-xendra bidezidorra, bidexka	«Estuxeagoan zen bide-xendra hau, zorua ere kaxkarragoa, baina hainbestean ibil zitekeen.»	48
bidetxidor xendra	«Orain hemen kontuz. Eskuinera bidetxidor bat ikusiko diagu, eta hortik jo behar diagu.»	48
bihotzerre sabelean erredura sentazioa	«Hitz haiek entzutean sastada bat sentitu zuen Jabik saihtsean, bihotzerre antzeko bat urdailean, ikusmena lausotzen zion zorabioa begietan.»	106
burubide egoera, bizitzaren joana	«...pentsatzen jarri zen Esteban, bere azken asteetako burubideaz eta paraderoaz.»	72
damu garbaia, erru sentimendua	«...eta beranduko damuarekin joan zen kirol-denda erraldoi horietako batera...»	50
dokudrama dokumental-drama nahasketa	«Gerra Zibilari buruzko dokudrama bat...»	20
duin dignoa, txukuna, honestoa	«...alderdi tekniko nahiz artistikotik ekoizpen duina eta txukuna...»	20
egartsu egarbera, oso egarri dena	«...marabunta egartsua nola-hala menderatzeko.»	95
elkor antzua, fruitu gabea	«...jantoki-bagoiko ogitartekoak lehorrak bezain elkorrak ...»	81
enparauak gainerakoak	«...hegaztiaren adina, azken egunetako janari eta gorotzak, luma-galtze eta enparauak .»	12
erdeinu mespretxua, gutxiespena	«...eta esaldia amaitu ordez erdeinuzko imintzio bat egin zuen.»	51
erdibana bakoitzak erdia	«Baina erdibana pagatzeko edo...?», uzkur Urresti.»	53
erlaitz teilatuen ertz irtena	«Mikel eta Esteban, erlaitzaren azpitik atera edo ez erabaki ezinik...»	63
erretolika sermoia, matraka, jardun luzea	«Emakumeak ez zuen kontra egiten, isilik zegoen: beharbada Jabiren erretolikak konbentzitu zuen.»	108
erretxindu amorratu, suminkor jarria	«...erretirorako urteak zenbatzen bizi zen agure erretxindu batek...»	17



errezitatu ozen irakurri, abestuz bezala	«Beste modu batera ere egin liteke: hango paisaiak filmatu, eta bitartean poemak errezitatu , aurkikuntzaren garrantzia komentatu...»	44
eskorta korrala, korta	«Ala emakumearen berezko joera ote zen arra baztertu eta eskorta barruan gobernatzekoa?»	72
estimatu preziatu	«Joan Mari Lekuonak ere hala esaten omen zion, ardo ona estimaten ez dakienak ezin diola testu on bati antzik eman.»	53
exotiko kanpotikoa, ez jatorrizkoa	«...jarraitu beharko nuela animalia exotikoekiko nire lilura.»	12
ezaxola ardurarik eza, pasotismoa	«...gaur bezalako ezaxolaz eta pinpirinkeriaz...»	87
ezpada baizik eta, ezpadaze	«... ezpada denboraren ajeatze errukigabearen eta utzikeriaren erruz.»	80
galeper pospolina, txori mota (codorníz)	«Armairuetan lata bat edo beste (babarrun zuriak galeperrekin , antxoak oliotan) eta hiru-lau klaseko pattarrak.»	49
garaztatu urezatu, erregatu	«Txemi begira geratzen zaio Garbiñek petunia-potoa garaztatzen duen bitartean.»	131
genealogia arbasoen zuhaitza	«...oraintsu arte ez zen jakin poesiari idatzi zuenik, nahiz eta bere leinuaren genealogia bat egin zuen...»	37
gentziana mendietako landarea, lore urdina	«Pigmalion-ena egin nahi izan zuen: gentzianak , mendi-txoko ezkutuak...»	72
gizon fardel gizon gogorra, finezia gutxikoa	«...gizon fardel hark, negarrari utzita eta behar den bezala jantzita ze piura izango zuen...»	14
gordailu ezkutalekua, gordelekua	«Bazkari-pasada arin bat egin eta hor abiatu ziren, Esteban Audi A3an, arrazaren esentzien gordailura : mendira.»	47
gutziatsu erakargarria, eduki nahi dena	«...baina telebistako Heidiri beharbada ez zioten inoiz halako opari gutziatsurik egin.»	114
hainbestean gutxi gorabehera, halan-holan	«Estuxeagoan zen bide-xendra hau, zorua ere kaxkarragoa, baina hainbestean ibil zitekeen.»	48
harraska ontziak garbitzeko lekua	« Harraska azpian aurkitu zituzten garbikari eta trapu zenbait, ezer garbitzeko baino zaborretara botatzeko egokiago ziruditenak.»	49
hasi-masiak abezea, hatapenak, hasikinak	«...bulgarierazko hasi-masi batzuk irakatsiko ote zizkon.»	115
hasperen arnasbehera, suspirioa	«...halako ikara-salto bat egin du Garbiñek, hasperen ito bat ere bai...»	132
hazpegi beso-zangoak, ohadarrak	«...vikingoen aldean hazpegi birirbiduagoekin...»	102
hizpide hizketa-gaia, solasgaia	«Eguraldia atera zuen hizketarako gai, eta hortik hizpidea hartuta oporretarako planak aipatu zituzten...»	73
hordigarri mozkortzekoa, txundigarria	«Hantxe zeukan hiru Heidiren ikuskizun hordigarri hura: bata mendirik mendi pantaila barruan; bestea sofan hondoratua baina gorputza geldi...»	124
hurrena ondoren, segidan	«Begiak itxi ditu hurrena ...»	87
ibitu pasatu	«Heidi alabaren otzantasunak laguntzen zion grina hori ibitzen eta apaltzen.»	113
idiliko ametsua, paradisukoa	«Batari asteburu idilikoa agindu zion, besteari <i>stage</i> informala, hirugarrenari miniopor ordainduak...»	43
ifrentzu iruntzia, beste aldea	«...bere barre alairen ifrentzua X izpiz ikusiko balu bezala.»	86
ildo bidea, ildaska	«...programaren ildoak eta berrikuntzak aztertzeko...»	24



imintzio keinua, planta	«...eta esaldia amaitu ordez erdeinuzko imintzio bat egin zuen.»	51
irrits sexu pasioa, grina	«Batari zein besteari begiratzen zien Jabik txandaka, eta Heidi amaren emetasun betean ikusteak bere irritsa pizten bazion...»	113
itomen ezinegona, larritasuna	«...halako itomenean zegoen gizonari baliagarria izango zitzaiolakoan...»	11
izendatu finkatu	«Felixekin izendatutako eguna iritsi zen.»	47
kaier koadernoa	«Txabusinarekin batera kaierak eta liburuak ekarri zituen Heidik biharamunean, bere lan-tresna berriak.»	116
kakagura kakalarria	«Eta nola idazkariaren kalakak gero eta kakagura handiagoa ematen zion...»	55
kalaka berriketan, hizketa jarraia	«Eta nola idazkariaren kalakak gero eta kakagura handiagoa ematen zion...»	55
kasik ia	«Jabi berehala ohitu egin zen eta kasik politagoa eta guzti iruditzen zitzaion orain...»	94
kilikagarri erakargarria, edukitzeko gogoia	«Baina Jabiri are kilikagarriago begitandu zitzaion bere soilean, are sexiago bere pobrean.»	125
kirtenkeria ergelkeria, inozokeria	«Normalean erantzun ere ez zion egingo horrelako kirtenkeria bati...»	19
kokilduta beldurtuta bezala, uzkur	«Horrelako entusiasmoaren aurrean kokilduta geratzen zen...»	23
komeriak gorabeherak	«...muturraren aurrean jartzen dizutenean hasten dira komeriak .»	82
konbentzitu limurtu, lerratu	«Emakumeak ez zuen kontra egiten, isilik zegoen: beharbada Jabiren erretolirik konbentzitu zuen.»	108
kutixia guraria ,gutizia	«Hau oraingoz nire kutixia bat da beste ezer baino gehiago.»	38
kutsu ukitua, osagaia	«...bere azken gogoeten kutsu zaharminduz ohartuta.»	87
kuxidade formalitatea, jarrera egokia	«...eta egun pare baten ondoren kopeta altxatu, malkoak sikatu, zintz egin, eta erabaki zuen hura ez zela kuxidadea .»	107
lain adina, beste,	«...inoren beharrik gabe moldatzeko lain ...»	98
lanbrotsu nahasia, lainoa-auria	«Pentsamendu lanbrotsuak izaten ziren...»	22
lañotasun izaera simplea, irekia eta goxoa	«...lehenengoa nahi izaten zuen berrikusteko, pertsoniak (...) lehendabizikoz aurkezten direnekoa, beren lañotasun , xarma eta inozentzia guztiarekin.»	120
larritasuna estutasuna, egonezina	«Halako larritasunez begiratzen zidan gizonak...»	11
lausotu lainotu, difuminatu	«Hitz haiek entzutean sastada bat sentitu zuen Jabik saihetsean, bihotzerre antzeko bat urdailean, ikusmena lausotzen zion zorabioa begietan.»	106
leinu enda, etorkia, askazia	«...oraintsu arte ez zen jakin poesiarik idatzi zuenik, nahiz eta bere leinuaren genealogia bat egin zuen...»	37
likatsu bigun-bustia, lirdingatsua	«...herrikoa izateak ematen duen konfiantza likatsu horrekin...»	12
lilura txundidura, mirespen handia	«...jarraitu beharko nuela animalia exotikoekiko nire lilura .»	12
lits harildua, urratua, flekoa	«...baina behe-laino zuriaren litsak ikusten ziren mendi alderantz...»	55



losintxa lausengua, balakua	«Estebanek mirespen isila ez ezik Urrestiren losintxa ozena ere eraginez: "Hori da hori, kuloteak egoki betetzea".»	57
lur-puska lur eremua	«Hantxe hasten zen Felixen lagun lur-puska , eta berehala jo zuten txabola ere.»	48
maindire mihisea, izara	«...eta lanean segitzen zuen, maindire garbitu berriak gantxoetan zabaltzen edo egongelako apaletan hautsa kentzen.»	103
makala ez izan itzela izan, nabarmentzen dena	«Ez zara makala gero!»	53
makulu euskarria, muleta	«...gero astebetean-edo makuluekin , orkatila bere onera etorri arte.»	74
marabunta (inurri) pilo erraldoia	«... marabunta egartsua nola-hala menderatzeko.»	95
matraka errieta, agiraka	«...etxean aspertu egiten nintzelako amaren matraka entzuten...»	12
merke-zurrean merke antzean, asko gastatu gabe	«Eta gidoi posible bat aztertzeke lan txiki bat aginduko banu, asko gastatu gabe, merke-zurrean ...?»	45
mikaztu zapore gogorra, mingotsa	«...irribarre gozo batekin baina, Estebani ahosabaia mikaztu ziona.»	58
minberatu mindua, sensible jarria	«...bere oin minberatuak mugitzen eta gorputz abailduari tente eusten.»	28
mokofin mizkina, sibarita	«Edarien sailean ikusi zuen Estebanek janarietan baino mokofinagoa zela idazlea ardo kontuetan.»	53
morrosko mutil-puska, katxarroa	«...non pentatleta itxurako morrosko baten esku utzi zuen.»	51
mutxurdin neskazaharra / izaera ozpindukoa	«Maite izan zen lehena, neskazahar sartu eta mutxurdin atera zena, komentario askorik piztu gabe...»	57
nardagarri nazkagarria	«...eta haren begi berdeetan ispilaturik bere irudi barregarri bezain nardagarria sumatu zuen...»	61
narraskeria utzikeria, alproja giroa	«...Urresti estudiante-pisuetako narraskerian eroso sentitzen zirenetakoa zela iruditu zitzaion Estebani.»	53
neketsu kantsagarria	«...edo bere jardun neketsuan gorputza luzatu eta giharrak tenk sumatzen zizkionean, gorputzaren beste bihurtura batzuen oroigarri.»	113
nola-hala ahal bezala, kostata	«...marabunta egartsua nola-hala menderatzeko.»	95
ñañarra nimiñoa, kakanarrua	«Lore urdin bat zen, tronpeta itxurakoa, gainerako basalore ñañarren aldean handia...»	27
oniritzi onespena, onarpena	«...gustura baitzebilen umekeria eta txorakeria artean, eta aldi berean Heidi amaren oniritzia berreskuratzen ari zela sumatzen zuen...»	112
opa egin desiratu	«...bere mendi-jantziekin, elkarrri "ondo lo egin" opa eta masailetan muxu pareta eman ondoren.»	68
otzantasun mantsotasuna	«Heidi alabaren otzantasunak laguntzen zion grina hori ibiltzen eta apaltzen.»	113
ozta doi-doi, justu-justu	«Emakumeak ez zuen ezer hartu nahi izan; eta eseri ere ozta besaulkiaren ertzean.»	101
paraje ingurua	« Paraje hartako seinaleren bat hautematen saiatu zen Esteban...»	48
paria persona behe mailakotzat hartua	«...gizarte hipokrita honek baztertu dituen pariak baizik?»	81
pattar likorea, edari bizia alkoholduna	Armairuetan lata bat edo beste (babarrun zuriak galeperrekin, antxoak olioetan) eta hiru-lau klasteko pattarrak .»	49

pentatleta bost probatako kirolaria	«...non pentatleta itxurako morrosko baten esku utzi zuen.»	51
petunia lore mota	«Ez direla jeranioak. Esan nizun petuniak zirela.»	131
pinpirinkeria itxurarekin ardura gehiegi izatea	«...gaur bezalako ezaxolaz eta pinpirinkeriaz ...»	87
piura itxura, planta	«...gizon fardel hark, negarrari utzita eta behar den bezala jantzita ze piura izango zuen...»	14
piztu eragin, sortu	«Maite izan zen lehena, neskazahar sartu eta mutxurdin atera zena, komentario askorik piztu gabe...»	57
pleistozeno hirugarren garai geologikoa	Pleistozenoko piztia baten erritmo geldo baina etengabea zihoazen...»	73
prakanasai alproja tunantea (calzonazo)	«...izatez prakanasai axolagabeak direla aldarrikatzen baitzuen beti amak.»	99
purrusta barre ezin eutsia	«...aski ziren keinuak, esku-hazpegien mugimenduak, barre eta purrustak .»	111
putzil txoriburua, kankala, txaldana	«...ea etxera bisitan etorriko zen, ea Olga putzil horren berririk izan zuen, ea eguna norekin ospatu behar zuen...»	105
puxtarri kanika	«Bost puxtarri hiretzako, esan zion Estebanek bere buruari.»	35
sastada zizta, ziztada	«Hitz haiek entzutean sastada bat sentitu zuen Jabik saihetsean, bihotzerre antzeko bat urdailean, ikusmena lausotzen zion zorabioa begietan.»	106
segapoto mugikorra, mobila	«... <i>bollé</i> betaurrekoak, bastoi teleskopikoa, motxila..., eta larri ibili zen GPSdun segapotoa erosteko ere.»	52
setiatze inguratzea, akorralatzea	«...etxeko nagusiak, alaba txikiaren aurrean, setiatze hari muga jartzeko gutxieneko lotsa izango zuelakoan.»	110
sikiera bederen, behintzat	«Zergatik ez dut ba nik ere piercing bat egingo, edo tatuaje bat sikiera .»	87
so egin begiratu, behatu	«Heidi amak ere halako begiratu gozo batez so egin zion alabari...»	114
soil hutsean, ezer gabe	«Baina Jabiri are kilikagarriago begitandu zitzaion bere soilean, are sexiago bere pobrean.»	125
solasgai hizpidea, elepidea	«...mostradoreko baliabide ugariak erabili eta solasgai posible guztiak aterata ere...»	104
sumatu igarri, nabaritu	«...gustura baitzebilen umekeria eta txorakeria artean, eta aldi berean Heidi amaren oniritzia berreskuratzen ari zela sumatzen zuen...»	112
tanto tanta, tangada	«...zertan ari zen konturatu gabe, kruasan apurren eta txokolate tantoen gainetik Heidiren eskuak bereetan hartu eta belauniko geratu zen...»	106
taxugabe eragabekoa, zentzugabea	«Amaitu ziren Jabiren eskola taxugabe horiek...»	120
tenk tentsioan, tirante	«...edo bere jardun neketsuan gorputza luzatu eta giharrak tenk sumatzen zizkionean, gorputzaren beste bihurtura batzuen oroigarri.»	113
totelka moteldu, totalka hitz egin	«“Nik ez...nik ez dion...”, hasi zen totalka .»	62
trenpu gorputzaldia, ozarkeria, ausardia	«...moxkor puntuak autoanalisi eta exhibizionismorako trenpu ematen ziolako...»	19
txabusina bata, tunika	«...lanerako erabiltzen zuen txabusina urdina jantzi eta garbiketari ekin zion, egun batzuetako utzikeria eskatzen zuen bezalako kemenez...»	108
txatxu inozoa, baboa	«...burukideren baten alaba txatxua telebista egin nahi duela-eta entxufez sartu digutena.»	21

txepel adorea gabea, gatz bakoa, leloa	«... txepelegia iruditzen zitzaion idazlea horretarako.»	41
txilbor zulotxo	«...erakutsiko ote dituzten beren txilborrak eta <i>piercing</i> -ak?»	87
txolindu kokolotu, kolokatu	«... txolintzen hasita zegoen ordurako, eguerdiko txakolinei otorduko errioxa bazkalorduko kopak erantsita...»	18
txortxorrean berba eta berba, kalakan	«Barre egin zuen Estebanek ere, eta giro alai horretan egin zuten bidea, hartuaz eta hartaz txortxorrean .»	47
uhertu arre bihurtu, kolore iluna hartu	«...furgoneta abandonatu baten hondar uhertuak eta beste.»	84
ulu oihua, uhuria	«Jabik mihia atera eta keinu barregarri bat eginez gero, haurren algara eta ulu arteko oihi horietakoa egingo zuen txikiak.»	109
urruma kexa, intziria	«...bere komentario gehienei hitz bakarreko eratzuna eman ohi zien Heidik, beste askotan urruma ulertezina besterik ez, eta lanean segitzen zuen...»	103
utzikeria nagikeria, zabarkeria	«...lanerako erabiltzen zuen txabusina urdina jantzi eta garbiketari ekin zion, egun batzuetako utzikeriak eskatzen zuen bezalako kemenez...»	108
uxatu aienatu, aldenarazi	«Honek aprobetxatzen ote dik sofa hori... amen batean uxatu zuen Estebanek pentsamendu hori.»	44
uzkur lotsatia	“Baina erdibana pagatzeko edo...?”, uzkur Urresti.»	53
xalo-xalo bihurrikaria gabe, zintzo	«...galdetu zuen xalo-xalo Estebanek.»	51
xarma erakargarritasuna, enkantua	«...lehenengoa nahi izaten zuen berrikusteko, pertsoniak (...) lehendabizikoz aurkezten direnekoa, beren lañotasun, xarma eta inozentzia guztiarekin.»	120
xaxatu zirikatu	«... xaxatzen du lagunak.»	85
zabar arduragabea, desordenatua	«... zabar eta alfer samar, horretaz pentsatzen jarrita erabaki zuenez...»	97
zaharmindu errea, zahar kutsua hartu	«...bere azken gogoeten kutsu zaharminduaz ohartuta.»	87
zaletasun hobbya, entretenimendu gogokoa	«...—mendia zaletasun merkea da oraindik, urrutira joan ezean—.»	44
zena zela honegatik edo hargatik	« Zena zela , hainbat eskari era agintzaren ondoren, baietz esan zion Heidik, joango zela berriz lanera.»	108
zikoizkeria zekenkeria, txikikeria	«...gonbidatu balu kasik merkeago aterako zitzaiola kalkulatu zuen, baina ezin hasiko zen orain horrelako zikoizkeriekin .»	54
zintz egin mukiak arnas kolpez atera	«...eta egun pare baten ondoren kopeta altxatu, malkoak sikatu, zintz egin , eta erabaki zuen hura ez zela kuxidada.»	107
zizi-paza eseak zeta ahoskatzea, parrastada	«...ezpain artean berak ere ulertzen ez zuen zizi-paza bat botatzen zuela.»	106
zoko bazterra	«...bulegoaren beste aldean eta leihorik gabeko zoko batean.»	131
zuntzundu lelotu, ergel bihurtu	«...ohean zuntzunduta geratzeko gogoari aurre eginez...»	29
zurrapaki sorbetea	«...hango izozki eta zurrapakiek hizpidea emanik...»	34
zurtuta harrituta, txundituta	« Zurtuta geratu zen Jabi. Bizkar altu samarrekoa zen sofa hura, eta lehen paretaren kontra zegoen arren gero aurreratu egin zuen...»	124